

# Matilde Ucelay eta emakumezko arkitektoak EHAEOn kolegiatzearen testuingurua (1936-1975)

**Laburpena:** Artikulu honen helburua da narrazio historiografiko labur batez deskribatzea nola sartu ziren emakumezko arkitektoak Euskal Herriko elkargoan hirurogeiko hamarkadan. Horretarako, Matilde Ucelayk bizi izandako testuingurua hartuko da abiapuntutzat, bera izan baitzen Espainiako Estatuan titulatu zen lehenengo emakumezko arkitektoa, 1936an.

**Hitz-gakoak:** Emakumezko arkitektoak, kolegiatzearen testuingurua, EHAEO.

**Abstract:** The article seeks to provide a brief historical overview of women architects and the COAVN during the 1960s. The starting point will be the situation experienced by Matilde Ucelay who was the first woman architect to qualify in Spain in 1936.

**Key words:** Woman architects, accreditation context, COAVN.



**Olatz Ocerin Ibáñez**

Filosofian doktorea eta arkitektoa. EHAEOko Gobernu Batzordeko kidea.

Bidaltze data: 2017-04-30

Onartze data: 2017-05-18

Genero-ikuspegia arkitekturaren eremuan eraikitzeko, ezinbestekoa da arkitektoaren berreraikuntza historiografikoa egitea. Horretarako, kontuan hartu behar dira arkitekturaren alorreko genero-ikuspegiari buruzko azken ikerketa-ildo, batzar eta azterlanek eskaintzen dituzten datu berriak. Ikerketa horiek, arkitektura-eskolek eta Arkitektoen Elkargo Ofizialek arkitektoaren prestakuntza eta lanbidearen erakunde ofizial gisa ematen dituzten datuez baliatzeaz gain, euskarri metodologikoa bilatu behar izan dute eskema ez-tradizionaletan. Izan ere, oinarriko bibliografian edo erreferentziatzko eskuliburuetan gabezia nabaria dago emakumezko arkitektoen obra, proiektu eta biografiei dagokienez, eta, hortaz, gai hau jorratzeko ezinbestekoa da aztertzea zer-nolako testuinguruetan prestatu diren eta garatu duten euren lanbidea emakumezko arkitektoek, emakume horien bizipen pertsonalak ezagutzeaz batera. Hau da, horiek ere funtsezko ezagutzak elementuak dira ikerketetarako. Horri begira, emakumezko arkitektoak Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialean (EHAEO) hirurogeiko hamarkadaren amaieran nola sartu ziren deskribatzen duen narrazio historiografiko labur bat eskainiko da jarraian. Horretarako, Matilde Ucelayk bizi izandako testuingurua hartuko da abiapuntutzat, bera izan baitzen Espainiako Estatuan titulatu zen lehenengo emakumezko arkitektoa, 1936an.

## **Matilde Ucelay eta arkitektura-lanbidera zuzendutako dedikazio osoa.**

### **Matilde Ucelayri buruzko monografia<sup>1</sup> 2012an argitaratu**

<sup>1</sup> Matilde Ucelayri buruzko informazio osoaren iturria obra hau da: SANCHEZ DE MADARIAGA, I. (2012) Matilde Ucelay Maórtua. *Una vida en construcción*, Secretaría General Técnica, Centro de publicaciones, Ministerio de Fomento,

izanak emakume horren obra berreskuratu zuen, eta gogora ekarri zuen bera izan zela estatuko lehenengo emakumezko arkitektoa<sup>2</sup>, Madrilgo Arkitektura Eskolan 1936an titulatu. Monografia mardul horretan, erregimen frankistak eta Arkitektoen Elkargo Ofizialek bere garapen profesionala eragozteko xedez jarri zizkioten oztopoen gainetik emakumezko arkitekto horrek eraiki zituen ia 120 obrak biltzen dira. Matilde Ucelay arkitekturaren lizentziatu zen lehenengo urteaz geroztik zigortu zuten, 1936ko abuztuan Madrilgo Arkitektoen Elkargoko Gobernu Batzordearen partaidea izateagatik, horren helburu esplizitua gobernu legitimoa defendatzen laguntzea izan baitzen. Horren ondorioz, Matilde Ucelay bizitza osorako utzi zuten kargu publikoetatik eta zuzendaritzako zein konfiantzazko karguetatik kanpo, horietan aritzeko desgaitzua ezarri baitzieten. Horrez gain, bost urtez debekatuta izan zuen lanbidean modu pribatuan aritzea, eta 30.000 pezetako isuna ere jarri zioten. Are gehiago, nahiz eta bere «arkitekto» (arquitecto, ez arquitecta) titulu ofiziala 1936an lortu zuen, ez zioten ofizialki eman 1946. urtera arte. Oztopo horien guztien ondorioz, Matilde Ucelayk ezin izan zituen sinatu bere lehenengo proiektu eta obrak, eta beraren orde bere lankide hurbil batzuek sinatu behar izan zituzten. Beste alde batetik, haren izena Madrilgo Arkitektoen Elkargoak urtero argitaratzen zituen arkitektoen zerrendatik kanpo utzi zuten, nahita, 1940ra arte. Nolanahi ere, zigor zorrotz eta bidegabe horiek ez zuten eragotzi Ucelay bere lanbidean Madril.

<sup>2</sup> Espainian, beste hiru emakumek soilik ikasi zuten arkitektura gerraren garaian, Madrilgo Arkitektura Eskolan. Lali Úrcola: ez zen titulatu, ezkondu eta karrera utzi zuelako; Cristina Gonzalo, 1940an titulatu, eta Rita Fernández-Queimadelos, 1941ean titulatu (Agudo, Y. eta Sánchez de Madariaga, I., 2011:159).



**Irudia** – Matilde Ucelay obra bat bisitatzen.  
**Iturria** – *Un día una arquitecta* bloga  
 «www.undiaunaarquitecta.wordpress.com»

**Irudia** – Matilde Ucelay bere lan-mahaian.  
**Iturria** – *Un día una arquitecta* bloga  
 «www.undiaunaarquitecta.wordpress.com»

bete-betean aritzea 1936an titulatu zenez geroztik. Hala, 1981ean erretiratu arte, Ucelay berak zuzendu zituen bere proiektuen eraikuntza, eta, hortaz, Espainian «arkitekto» gisa titulatu zen lehenengo emakumea ez ezik, «arkitekturelanbidean dedikazio osoz aritu zen lehenengo emakumea» ere izan zen.

Matilde Ucelayren titulazioaren ostean, ia hogeitau urteko garaian, beste zazpi emakumek soilik lortu zuten arkitekto titulua. XX. mendearen erdira arte, oso gutxi izan ziren Espainiako arkitektura-eskoletara sartu ziren emakumeak, hau da, haien presentzia oso minoritarioa izan zen. Horren arrazoi bakarra ez zen izan Erregimen autokratikoak ezarri eta Falangearen Emakumezko Atalak (*Sección Femenina*) indartu zuen ideologia dominatzailea. Bada, gainerako arrazoiak sakonago ezagutzeko, beharrezkoa da XX. mendearen bigarren hereneko testuinguruan kokatzea eta Espainiako arkitektoen klase sozial eta profesional pribilegiatua deskribatzea.

### **Arkitektoen estatus pribilegiatuaren amaiera<sup>3</sup>**

Arkitekto lanbidearen izaera klasista zenbait arrazoitan zegoen oinarrituta. Alde batetik, Madrilgo eta Bartzelonako Arkitektura Eskoletan ezarrita zegoen numerus claususek mugak jartzen zituen bertara sartzeko, eta, hortaz, graduatuak kopurua eremugatzeko. Beste alde batetik, karreraren berezko zailtasunak eta beraren kostu ekonomiko handiak oztopatu egiten zuten baliabide ekonomiko urriko klase sozialen sarrera. Gogoan izan behar da, horri dagokionez,

<sup>3</sup> Atal hau obra honen 4.3. kapituluaren oinarritzen da: *Desarrollismo y democracia. La creación de nuevas Escuelas de Arquitectura en España*. Ikus (Ocerin, 2016:214-234).

Espainian bi arkitektura-eskola soilik egon zirela XX. mendearen erdira arte: Madrilgoa, 1845ean sortua —eta, hortaz, zaharrena—; eta Bartzelonakoa, 1875ean sortua. Baldintza horien guztien ondorioa zen egrestatutako ikasleen kopurua oso txikia zela. 1940 eta 1945 bitartean urtean graduatu ziren ikasleen batez besteko kopuruari buruzko datu estatistikoei begiratuz gero, bi arkitektura-eskolak kontuan hartuta, ikusiko da Espainia osoan 33 arkitekto baino ez zirela graduatzen urtean. Urte batzuk geroago, 1955ean, titulatu berrien arkitektoen kopurua 51era igo zen, Espainia osoan. Egresatuen kopuru txiki hori XX. mendearen lehenengo erdi osoan mantendu zenez, horren ondorioa izan zen espainiar lan-merkatuan oso txikia zela arkitektoen kopurua, eta horregatik arkitektura oso lanbide eskusiboa zela. Datuek erakusten dutenez, 1930ean 1.000 arkitekto inguru zeuden kolegiatuta estatu osoan, eta kopuru hori 1.500era iritsiko zen 1958aren inguruan. Arkitektoen herenak Madril eta Bartzelonan kontzentratu ohi ziren, eta, beraz, Espainiako gainerako lekuetan 500 profesional baino ez zeuden, guztira. Garbi dago, jakina, horrek lan-bolumen oso handia izatea ahalbidetzen ziela arkitektoei, eta bezero kopuru oso handia ere bai; bezero horien artean, udalak, aldundiak eta beste hainbat erakunde publiko sartzen ziren, bezero pribatuekin batera. Horrenbestez, XX. mendearen erdian, arkitektoek lan-merkatu hobezina zuten Espainian, eta horrek estatus profesional, sozial eta ekonomiko pribilegiatua ematen zien.

Nolanahi ere, pribilegio profesional eta sozial hori zeharo aldatuko zen iragan mendearen erdian, Irakaskuntza Teknikoen Antolamenduari buruzko 1957ko uztailearen 20ko Legea onartu zenean. Izan ere, lege hura indarrean jartzeak

ahalbidetu zuen, aurreneko aldiz, arkitektura-eskolak Espainiako edozein hiritan eratzea, eta horren eraginez arkitektoen kopurua izugarri ugaltu zen urte gutxian. Lege hori sortzeko arrazoia gobernu frankistaren asmo argi bat izan zen, alegia, goi-mailako teknikariak lehenbailehen prestatzea, Espainiako desarrollismo ekonomikoaren eta hirurogeiko hamarkadako bultzada teknokratan oinarrituko zen gizarte berriaren beharrei erantzuteko. Lege berri horri esker, lau arkitektura-eskola berri eratu ziren bederatzi urtean, eta bertara sartzeko bidea mugatzen zuen numerus claususa desagertu zen. Horren ondorioz, 1956-57 ikasturtean 500 ikasle izatetik 1962-63 ikasturtean 900 ikasle baino gehiago izatera pasatu zen, eta 1975-76 ikasturtean 5.700 ikasle izatera iritsi zen. Arkitekturalanbidearen masifikazio gero eta handiagoak hasi besterik ez zuen egin garai hartan.

### **Euskal Herriko lehenengo emakumezko arkitektoen kolegiatzearen testuingurua**

Testuinguru horretan, hau da, arkitektura-eskola berriak sortu eta arkitektoak desarrollismo frankistan murgildutako lan-munduan ugaltzen ari zirenean, orduan kolegiatu zen lehenengo aldiz emakumezko arkitekto bat Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialean (EHAEO). Hala, badakigu EHAEOn kolegiatu zen lehenengo emakumea María Teresa Capdevila Bermejo izan zela, Nafarroako ordezkartzan, 1967an. Hirurogeita hamarrek hamarkadaren hasieran, zazpi emakume atxiki zitzaizkion elkargoari, eta 1980. urterako 24 emakumezko arkitekto zeuden erregistratuta EHAEOn. EHAEOn datu horiek alderatzen badira Bartzelonako Eskolan titulaturako lehenengo emakumezko arkitekto katalanen datuekin, ikus daiteke ezen EHAEOk argitaratutako datuen garai berean, hau da, 1964 eta 1975 bitartean, 73 emakumek soilik lortu zutela arkitekto titulazioa Bartzelonako Arkitektura Eskolan. Madrilgo Arkitektura Eskolak ere datu estatistiko berdinsuak ditu: 1968an 200 ikasle inguru zeuden bertan, eta horietatik % 3 soilik ziren emakumeak. 1959an sortutako Sevillako Arkitektura Eskolak, berriz, bi emakume zituen 1964an. Gure lurraldeko arkitektura-eskolei buruzko datuei dagokienez, aipatzekoa da aurrena Iruñekoa sortu zela, 1964an. Opus Deiri atxikitako eskola horrek 33 ikasle zituen hirugarren mailan, eta horietatik 4 baino ez ziren emakumeak. Euskal Herriko Unibertsitateak (UPV/EHU), berriz, 1977. urtera arte ez zuen abiatu geroago UPV/EHUn Donostiako Arkitektura Eskola izango zena. 1977. urte horretan hasitako lehenengo ikasturte horretatik, emakume bat izan zuen 27 ikasleren artean: María Montserrat Ruiz Fabrè, geroago eskola horretako Marrazketa irakaslea izango zena. Ikus daiteke, beraz, arkitektura-eskoletan titulaturako emakumeen kopurua txikia izan arren, hirurogeiko hamarkadaren amaieran eta hirurogeita hamarrekokoaren hasieran igoera txiki baina aipagarri bat gertatu zela Espainiako emakumezko arkitektoen kopuruan.

Garai berean, hau da, XX. mendearen azken herenean, emakumeei eta arkitekturari buruzko azken historiografiak nazioarteko testuinguruan nabarmentzen dituen datu batzuk azpimarra ditzakegu. Gogoan izan behar da une hartan, hirurogeiko hamarkadan, herrialde aurreratuetako gizartea oso kontzientziatuta zegoela emakumeen oinarritzko

eskubideen aldeko borrokaren inguruan: berdintasunezko soldata, sexuak eragindako diskriminaziorik ez egotea, amatasun-baimena izateko eskubidea edo abortuaren legearen erregulazioa. Alde batetik, Denise Scott-Brown amerikar arkitektoak 1973an salatu zuen, bere «Sexism and the Star System» izeneko hitzaldiaren bitartez, bere jarduera profesionala garatzean berak pairatu zuen sexismoa. Hitzaldi horretan, Scott-Brownnek nozio feminista generikoak aplikatu zizkion arkitekturaren mundu profesionalari, hauxe identifikatu baitzuen: «Sexismo nozioaren aplikazio bat da emakumeak lanbide-taldetik kanporatzea, kritikoek haien gaitasun profesionala aitortzen ez dutelako, emakume edo emazte izateagatik soilik» (ALVAREZ, 2015:62). Beste alde batetik, azpimarratu behar da Nazio Batuen Erakundearen Bazar Nagusiak Emakumeen Nazioarteko Urte deklaratu zuela 1975. urtea (International Women's Year). Horri lotuta, ADArchitectural Design aldizkari britainiarrak zenbaki oso bat zuzendu zuen gai hori jorraztera, 1975ean, «Women in Architecture» izenburupean.

Aldizkariaren zenbaki hori emakumezko arkitektoei buruzko lehenengo azterlan monografikoetako bat bilakatu da, eta agerian utzi zuen «RIBA, Royal Institute of British Architects elkargoan erregistratutako emakumeen kopurua oso txikia zela; eta gauza bera gertatzen zela ARB, Architects Registration Board-ean; edo, besterik gabe, bereziki txikia zela hirugarrenen kontura bulegoetan lan egiten zuten emakumeen kopurua, eta abar» (ALVAREZ, 2015:14). Horrenbestez, hirurogeita hamarrek hamarkadan, emakumeak gutxiengo txikia ziren Erresuma Batuan ere, arkitekturarekin lotutako mundu profesionalaren edozein sektoretan.

Bukatzeko, gaur egungo egoerari dagokionez, azpimarratzekoa da emakumeak arkitektura-eskoletara sartzen diren ikasleen % 50etik gertu daudela. Nolanahi ere, datuek erakusten dute unibertsitatearen alorrean gertatzen den parekotasun hori ez dela lanbidean islatzen. EHAEOK Euskal Herriko kolegiatuei buruz berriki argitaratu dituen estatistikek erakusten dutenez, emakumeak % 30 baino ez dira obrak exekutatzeko proiektuak sinatzen dituztenen arkitektoen artean.

Hau da, emakumezko arkitektoen ia % 20 ez da kolegiatzen, eta, hortaz, ezin du bere lan-jarduera gauzatu lanbide liberalaren zentzu klasikoan. Egia da, azterlanak ikusita, emakumezko arkitektoek arkitekturarekin zerikusia duen lan-eremua zabaltu dutela eta askotariko jardueretan aritzen direla: alderdi soziala, parte-hartzailea, alternatiboa, adierazpen artistikoa, kritika, teoria, edizioa, teknologia edo informatika txertatu izanak lan profesionalaren nozioa zabaltzen du, etengabe, Arkitekturaren alorrean. Azken azterlanek diotenez, emakumeak arkitekturalanbidea uztera eramaten dituzten arrazoiak honako hauek izaten dira: sexismoa, karrera profesionalen ez aurreratzea edo/eta lanaren prekarietatea. Halaber, azterlan horiek arkitektura-eskoletara zuzendutako gomendio batzuk egiten dituzte, alegia: haien irakaskuntza-programak zabaltzea, erreferentziazko gidaliburuei buruzko bibliografiak aldatzea eta emakumezko arkitektoen lanak ikastea, hau da, arkitekturaren historiari buruzko narrazioa aldatzea, emakumeek egindako ekarpen guztiak eransteko.

Ordezkaritza	Emakumeak	Gizonak	Guztira	Emakumeen %
Araba	90	202	292	31
Bizkaia	422	746	1.168	36
Gipuzkoa	390	615	1.005	39
Nafarroa	253	561	814	31
Guztira	1.155	2.124	3.279	35

Taula - Kolegiatuen estatistikak.


Iturria - [www.coavn.org/coavn/mail/17/MensajeDecana/170308.pdf](http://www.coavn.org/coavn/mail/17/MensajeDecana/170308.pdf)

### Konklusioak

Artikuluaz azalduenez, lehenengo emakumeak ez ziren EHAEOran sartu hirurogeita hamarreko hamarkadara arte, bertan kolegiatzeko. Horren arrazoia aldi berean gertatutako zirkunstantzia batzuetan aurkitzen da. Alde batetik, erregimen frankistaren amaierak—1975ean— nolabait ere irekitasuna ekarri zuen, eta horrek bukaera eman zion emakumeak goi-mailako ikasketetatik urruntzen zituen ideologia ofizialari; gainera, hori lagungarria izan zen nazioarteko testuinguru feminista Espainiako Estatura ekartzeko. Beste alde batetik, 1964ra arte Euskal Herriko lurraldean edo hareninguruan arkitektura-estudiarik ez egoteak ez zuen lagundu emakumeak karreran sartzeko. Egoera hori aldatu egingo zen Iruñeko Arkitektura Eskola—1964an— eta Donostiako—1977an—sortu zirenean. Hala eta guztiz ere, azpimarratzekoa da arkitektura-estudiorik berriak Espainian sortzeak hirurogeita hamarreko hamarkadan arkitektoen kopuruari ekarri zion hazkunde esponentziala ez zela neurri berean islatu emakumeen titulazio berrien hazkundera. Zalantzarik gabe, garai hartan gora egin zuen arkitektura-estudiora sartzen ziren emakumeen kopuruak, baina esan daiteke titulazio horiek oso gutxi zirela, artean ere, gizonen titulazioekin alderatuta. Horregatik, esan daiteke Euskal Herrian ere emakumeak berandu iritsi zirela arkitekturaren mundura.

Hala eta guztiz ere, emakumezko arkitektoek egindako proiektu eta obrei buruzko azterlan eta ikerketen bidez, eta arkitektura ikasteko eta lanbidea garatzeko garaian emakumeek izandako bizipen pertsonaletara zuzendutako ikerketak lagunduta, espero dugu arkitekturaren narrazio historiografikoa osatzen hastea—zeren hasten ari baikara—eta haren hutsuneak betetzea. Azken batean, asmoa da arkitekturaren historiografia berreraikitzea, genero-ikuspegia arkitekturaren alorrean eraiki ahal izateko.

///



Irudia - AD aldizkariaren azala, «Women in Architecture», XLV. (8) liburukia, 1975.

Iturria - [www.cafearquitectonico.blogspot.com.es](http://www.cafearquitectonico.blogspot.com.es)

### Bibliografia

Agudo, Y. eta Sánchez de Madariaga, I. (2011): *Construyendo un lugar en la profesión: trayectoria de las arquitectas españolas*, *Feminismos* 17, p 155-181, bisitatutako eguna: 2016/05/12, [https://issuu.com/eva\\_alvarez/docs/texts\\_by\\_ines\\_sanchez\\_de\\_madariaga](https://issuu.com/eva_alvarez/docs/texts_by_ines_sanchez_de_madariaga)

AAVV (1975): *Ideología y enseñanza de la arquitectura en la España Contemporánea*, Tucar Ediciones, Madrid.

Alvarez, E. (2016): *Women in architecture. 1975- 2015*, doktore-tesia, Valentiako Unibertsitate Politeknikoa, Valentzia.

Muxí, Z. (2012): «Arquitectura en femenino. Primera generación de arquitectas catalanas ETSAB 1964-1975», *Jornadas mujer y arquitectura: experiencia docente, investigadora y profesional*, Grupo investigación MAGA, ETSA A Coruña, 31-65.

Ocerin Ibáñez, O. (2016): *Formación y profesión arquitectónica en el país vasco (1774-1977). Origen y evolución de la profesión de arquitecto desde el siglo XVI hasta la creación de la Escuela Técnica Superior de Arquitectura de la UPV/EHU*, doktorego-tesia, UPV/EHU, Donostia-San Sebastian.

Prieto González, J.M. (2004): *Aprendiendo a ser arquitectos. Creación y desarrollo de la Escuela de Arquitectura de Madrid (1844-1914)*, CSIC, Madrid.

Sánchez de Madariaga, I. (2012): *Matilde Ucelay. Una vida en construcción*, Ministerio de Fomento, Madrid.

Trillo de Leyva, J.L. (2010): *De memoria. Orígenes de la Escuela de Arquitectura de Sevilla*, Secretariado de publicaciones de la Universidad de Sevilla, Sevilla.

«Mujeres y arquitectura», *Arenal-Revista de historia de las mujeres* (2014), bisitatutako eguna: 2016/07/31, <http://revistaseug.ugr.es/index.php/arenal/issue/view/150/showToc>.